Haur eta Gazte Literatura

Ur: Euriaren liburua.
Juan Kruz Igerabide

Irudiak: Elena Odriozola
Musika: Oihane Igerabide
Denonartean, 2014

Jolasten jarraitzeko gonbitea

NOLA DEFINITU jolasak, musika, liburua, irudi solteak… jasotzen dituen produktua? Horixe baita kutxatxo marroiaren barnean Denonartean argitaletxeak eskaintzen diguna. Juan Kruz Igerabideren testuak, Elena Odriozolaren irudi solte ugari eta CD bat musikaz, errezitatutako ipuin eta poemaz osatua, koro, musikari, interprete ugariren lana batuz. Nik sorpresa moduan definituko nuke. Ustekabe atsegin eta polita.

Kutxan bada liburuxka txiki bat guztiaren berri emanez eta jolasetarako gonbitea luzatzen duena: "Liburu hau txikitako euri-jolasen oroitzapenetatik jaio zen. Elena Odriozolaren irudi hauek testuekin euri-jolasean jaio ziren. Oihaneren musika hau euri doinuekin jolasean jaio zen. Grabazio hau lagun arteko jolasean jaio zen, hitzaren euri-festa batean".

Ezustekoen kutxa hau euri-jolaserako gonbita duzu, mundura "euri-ekarri" eta bere itsasora garamatzan bizitzarekin jolasteko. Haur, guraso, eta lagun ugari bildu gara, testuak grabatuz jolastera, ontzat eman arte errepikatuz, hitzaren zirrara sentituz. Euriaren eta bizitzaren jolas gisa jaio zen honekin jolasten jarraitzera gonbidatzen zaitugu ba."

Eta horixe da kutxatxoa. CDaren lehen kanta *Badator euria* izeneko Kenyako kantu herrikoia dugu; ondoren liburuan ageri diren testu eta poema batzuen errezitaldia. Izan ere, liburua ipuinez eta poemez osaturik dago, *Ur, erori nahi ez zuen tanta* liburuko protagonista tanta horixe da, baina tanta horren hainbat gorabeheren ondoren (bai eta hauetan tartekaturik ere) badira euriarekin zerikusia duten zenbait poema, gehienak laburrak, hiru bat lerrokoak, beste batzuk pixka bat luzeagoak: "BESTERA BEGIRA./ Eskolako lanak egin ordez,/ sor eta lor zaude/ euriari begira;/ aitak, ahapeka,/ jarraitzeko eskatzen dizu,/ baina euriak hobeto xuxurlatzen du". Metafora hutsak diren poema llaburrak ere badira: "Kristalezko matxinsaltoak:/ Euria"; edo lurralde urrituetara eramaten gaituztenak: "AFRIKAKO GAUA EURIA EGIN ONDOREN. Neskatila beltzaren begiak/ izarrez beterik; / zerua hegan dator/ oso behetik".

Juan Kruz Igerabideren testu hauekin batera kutxak Elena Odriozolaren lamina ugari dauzka; batzuk paperean eginiko irudiak, beste batzuk plastikoan marraztutako euriak, "arinenetatik hasi eta mardul eta zeharkakoetaraino", bi irudiak, paperezkoak eta plastikozkoak batuz jolas dezagun, irudi ezberdinak sor ditzagun.

Ur: Euriaren liburua lan ederra irakur, entzun eta jolas egiteko gonbitea da. Baita hemen ageri izan diren irudi, poema, ipuin eta kantuen antzekoak sortzera ere. ■

Xabier Etxaniz Erle